

Astekaria

HIESAren astea



**Kuriositaterik  
bai?**

elgoi



**M A P F R E**

**ASEGURU ETXEA**

San Frantzisko 40 - ☎ 74 05 82 - 20870 ELGOIBAR

# EIBARKO LIBURU AZOKA

Azaroaren 15etik 24ra



LANEGUNAK: Goizez 11,30-14,00 • Arratsaldez 17,30-21,30

JAIEGUNAK: Goizez 12,00-14,30 • Arratsaldez 17,30-22,00

ANTOLATZAILEA: Euskadiko Liburu Azoken Batzordea

BABESLEA: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila • LAGUNTZAILEA: Eibarko Udala - Kultura Saila



## II. MORKAIKO ARGAZKI LEHIAKETA

- Gaia: Mendia
- Neurria: Librea
- Koloretan nahiz zuri-beltzean
- 4 argazki gehienez
- Elgoibartarrei eta Morkaiko M.E.ko bazkideei (Elgoibarkoa ez bada) zuzendutako lehiaketa.
- Argazkiak entregatzeko epea: Abenduak 20, ostirala (Morkaikon)

### OHARRAK:

- Argazkien atzealdean non eta noiz ateratakoak diren jarri behar da.
- Argazkien erakusketa abenduaren 30etik urtarrilaren 7ra bitartean egingo da Kultur Etxean.

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12  
Faxa: 74 37 04

**ARGITARATZAILEA:**  
Elgoibarko Izarra.  
**LAGUNTZAILEA:**  
Elgoibarko Udala.  
**ZUZENDARIA:**  
Ainhoa Lodoso.  
**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**  
Andres Alberdi.  
**KAZETARIK:**  
Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.  
**PUBLIZITATEA:**  
Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**  
Maite Rementería.  
**ADMINISTRAZIOA:**  
Amaia Martín,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**  
Irati Agirreazaldegí, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga  
**INPRIMATEGIA:**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)  
**TIRADA:** 3.800 ale  
**LEGE GORDAILUA:** SS-  
1.038/92  
**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



luzua fundazioa  
fundación luzua

# ZENBAT BURU



## Enpresa publikoa- Enpresa pribatua

### HAINBAT ABURU

**L**agunartean, bazkal ostein edo, ohiko gaiak agortuta, sarritan izaten dugu mintzagai, berbetarako gai, enpresa publikoa.

Kirol atsegina omen da enpresa publikoa larrutzea baina gehiegizkoa iruditzen zait inoren buruzko zorria ikusteko daukagun gaitasuna, norberaren kaparrak sentitu ere egin gabe.

Normalean, eztabaida kasu pertsonal hutsalaren batetik hasten da, funtzionario alfer batena, esate baterako. Segituan esango du batek: "horrek gure enpresan ez luke iraungo ezta egun bat ere". Baina nik baietz, iraun, iraungo lukeela segun eta zein postutan dagoen edo noren laguna edo senidea den. Eta orduan hasten da auzia pil-pilean. Ea zer diodan, administrazioan egun osoa ikastaroetan ematen dutela, lanik egin gabe. "Ba... - nik ziria- ... ezagutzen ditudan enpresa batzuetan txitean-pitean dabilta erreziklatzeko kurtsiloretan lan orduetan; hori bai, goikoak. Besteak, lan orduetatik kanpo". Eta eztabaida hori berotzen hasten da, ze... horrelako gauzak enpresa pribatuetan ez dira diru publikoarekin egiten. Orduan nik aipatzen dizkiet errestrukturazioetan, formazioan eta enparauetan denon dirua barra-barra eralgi duten enpresa pribatu batzuk. Eta lagun batzuk, arrazoi osoarekin, mindu egiten dira, hori ez da-eta euren enpresaren kasua. Eta gehiago mintzen dira oraindik, orain arte isilik egon den batek esaten duenean, enpresa publikoetan bezala, enpresa pribatuetan hamaikatxo direla inoren diruarekin (akzionistena kasu horretan) euren karrera pertsonala egiten ari direnak; eta egu-nero kea asmatzen gainera. Eta ika-mika borbor jartzen da, batek aipatzen duenean berak

ezagutzen dituen kasuetan desberdintasun handirik ez dagoela publikoia ala pribatua izan.

Halakorik entzutea ere! Antza denez, enpresa publikoia gaitz guztien habia omen da (inefikazia, burokrazia, ustelkeria...). Orduan, burokrazia hitza aipatzea, akabo: kristona. Ze, jakina, enpresa publikoarena burokrazia da, baina enpresa modernoetan ez omen da burokrazia egun osoa protokoloak egiten ematea edo martxan jarri orduko modaz pasatu diren organigrama koloretsuak egiten ematea edo egiten dutena apuntzeari, egileari berari baino garrantzi handiagoa ematea; hori lan antolakuntzaren azken orduko teknikak aplikatzea omen da.


Eta liskarra gal-gal jartzen da batek aipatzen duenean desberdintasun bakarra zera dela, enpresa publikoan gaizki egindakoaren erruak behetik gora botatzen direla eta enpresa pribatuetan, aldiz, goitik behara.

Eta denok sutan jartzen hasten gara; eta ez dakigu zergatik, ze, badirudi geure (geure?) enpresa larrutzeko eskubidea pertsonala eta intransferiblea dela eta, bat batean, egunero kritikatzeko dugunaren defendatzaile amorratu bihurtzen gara batzuk eta besteak. Eta egoera gori-gori jarri baino lehen, lagun zentzudunak (uraz bazkaldu duena normalean) esaten du etiketak, klitxeak eta generalizazioak beti gezurra direla eta arrazoi osoa ez daukagula ez batzuek ez besteek.

Izan ere, mundu honetan, leku guztietan txakurrak ortozik dabilta. Ezagutzen ditugun lekuetan orain arte, behintzat.

**Edu Iriondo**

*Eusko Jaurerriaren  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalen  
diruz lagundutako  
aldizkaria*



## KEXAK

– Emakume batek honako kexa hau azaltzeko eskatu digu: “Lotsagarria da nola daon **Pilarreko zubixa**, dana **txakur kakaz beteta**. Ume asko ibiltzen dan tokixa izanda, nolatan ez dute gehiago zaintzen? Nik ere txakurra daukat eta mendira eramaten dot biharrak eitxera”.

– Emakume batek deitu digu Plaza Merkatutik King-Kongeraino **ibai aldetik dauden etxeak sasiz beteta** daudela esateko. Ez omen du batere ondo ematen eta garbitzeko intentziorik badagoen galdetzen du.

## TXALOAK

– Urasandiko irakurle batek deitu digu **Urasandiko iturria konpondu dutela** esateko. Txalo bat konpondu dutenei.

– “**Futboleko mutilen jubenilen A taldea** eta **nesken taldea** zoriondu nahi ditut euren futbol partiduetan batez ere **euskaraz** egiten dutelako. Bankiloetatik eta harmailetatik bestelakorik entzuten bada ere, pozgarria da gazte hauek euskaraz hitz egiten entzutea”.

## ESKUTITZAK

### Euria

**E**urizaparrada ari du. Eta ni askotan moduan euritakorik gabe harrapatu nau. Blaitzen, urasetzen ari da garbituberriko ilea. Euriak garbitu edo zikinduko du ilea? Jaboitan blai gaudenean eragiteko erabiltzen dugun urak besteko propietaterik izango du? Ez nuke jakingo. Inori ez diot entzun euriak horretarako balio duenik. Apika, gure arbasoek zikin zegoen adatsa garbitzeko euria ziharduera aprobetxatuz eta oiuhu, deiar batzuk jaurtiz garbituko zuten. Gaur egungo euria aspaldikoa bezalakoa ote da? konposaketa bera ete du edo txepelagoa da? Zer nolako galderok; euriak sortu zenetik blaitu, busti, ureztatu, garastatu... egiten du eta kitto! Holako erantzunetan ikus ohi da jendeak ez duela maite. Euria, pareko eguraldi txar, ilun, hotza. Zeinek esan du hori? Eguraldiaren gizonak. Hondartzan taberna daukan horri diru galera dakarkiolako. Edo mendiparaje horretan jaten ematen duenari. Neuri gustatzen zait euria ari duela auto barruan irakurtzea. Horrelakoetan taxista izatea gustatuko litzaidake. Jubilatuek arropaz gainezka kalera irteten direnean eta bisutsak lauso egitean, euren esku zimurtuak guardasolari gogor eusten ikustea ere gogoko dut. Holakoetan ez dut

erretiratuta egotea gustatuko litzaidakeenik esaten, ez gaizki bizi direlako, baizik eta euria ikusteko nik baino aukera txikiagoa dutelako. Garai bateko zorrotzailea filarmonia jotzen ikustea ere oso hunkigarria zen. Batzuek euria zekarrela zioten. Niri atso-agureek eramaniko euritako apurtua eta harrigurrpilak sortzen zituen xinpartak oso gustatzen zitzaizkidan. Egun, guardasol apurtuek ez dute urte askorik hartzen. Baztertuak gelditzen dira. Aterpe zein kanpainadenda batean nagoela tantek sortzen duten zarata entzutea ere oso atsegina dut. Baina gehien, euriak sortutako putzuetan neska-mutikoak plitiplasta begiestea. Oso barregarria iruditzen zait. Oraindik gogoan dut mutikotan jantzen genituen katiuskak. Beltzak ziren, ez zegoen egun dagoen aukeria. Galtzerdiak luzeak behar ziren, bestela katiuskak orkatila gainean sortutako marka minbera zen. Ama, pupu! Euria, jarrai ezazu zaren modukoa izaten, baduzu nor estimatuko zaituen eta.

Juan Luis Mugerza Unanue

## HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK







**E**

rretratu hau “Kamiñerokua”n aterata dago, 40. hamarkada inguruan. Atzean dagoen etxebizitza “Bar Kamiñerokua” dela esan digu **Pedro Sodupek**. San Lorentzoko kuadrila bat ageri zaigu erretratuan, patxada onean eta

lagunarte giroan.

Zein diren? Hona hemen izen-abizenak:

Atzetik hasita, ezkerretik eskuinera: **Domingo Badiola**, Kamiñeroko neskamea, **Eugenio Astigarraga** eta **Meltxor Gurrutxaga**.

Eserita: **Lorentzo Esnaola**, **Paco Aizpurua**, **Manuel Sodupe** (†) eta **Pedro Gorriti** (†).

*Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.*



# HIES

## ari buruz **24** GALDERA

Nazioarte mailan HIESaren astea ospatu da egunotan. Elgoibarren, Errotatzok, drogomenpeketasunon prebentziorako taldeak, hainbat ekintza antolatuta ditu, besteak beste, hitzaldiak eta erakusketa. Gaiak gure inguruan duen eragina kontuan izanda, Elgoibarko 17 urteko neska-mutil talde batongana jo dugu. Boraiok, HIESari buruz oraindik dituzten zalantzak eta galderak luzatu dizkigute eta horiek guztiak hartuta, Errotatxo, Udaleko Drogomenpeketasun Zerbitzuko teknikariarengana (Kati Pons) eta Anbulatogiko Medikuen koordinatzailearengana (M. Jesus Arzuaga) jo dugu. Errotatzok galdera hauei ez die erantzun nahi izan, morbo uste bat somatzen duelako beraietan. Positiboagoa irizten dio urtean zehar gazte hauekin egin beharreko eguneroko lanari. Hona hemen, beraz, beste biek eta Deba Beheko HIESaren Aurkako Hiri Batzordoko kide den Paki Luchak omandakoarekin osatu dugun erreportaia informatiboa.

### 1.- HIESaren lehen kasuak noiz izan ziren? Non? Norengan?

HIESaren lehen kasua EEBBetan izan zen 1981. urtean homosexualen artean. Euskadin, berriz, 1982-83 urte bitartean izan zen toxikomanoetan.

### 2.- Mundu osoan al dago hedatua?

Bai, batez ere Afrikan.

### 3.- Zein dira sintomak?

Gaixoak defentsa gutxi dituela aprobetxatuz, germen bereziek infekzioak sortzen dituzte, besteak beste, neumonia, Kandida Albicans, herpesa...

Badaude sintoma orokor batzuk nahiz eta HIESaren sintoma espezifikak ez izan: ganglioak gehitu edo handitzen dira, pisua galtzen da, sukarra izaten da, beherakoak...

### 4.- Nola kutsatzen da?

Babesik gabeko harreman sexualen bidez, xiringak edo antzeko instrumentuak konpartituz (kutsatutako odolaz daudenak) edo amak seme-alabari (haurdunaldian, erditzean edo esnea ematean).

### 5.- Bi ebaki elkarron ondoan jarri gero, kutsatzeko arrisku handia al dago?

Seropositibo baten ebakiak odola badauka eta beste pertsonak ere zauria badu, kutsatzeko arriskua dago.

### 6.- Haurdun dagoen emakume bat haurdunaldiaren ordian dagoela kutsatzen bada, sabolean daraman haurra ere kutsatuko al du?

Kutsa dezake baina ez dago %100eko arriskua. Haurra jaiotzen den momentuan seropositibo emango dute analisisiek baina amak transmititu diona GIBaren antigorputzak dira (defentsak, haurrak oraindik ez baititu sortu bereak). 18-20 hilabeteko epean sortzen ditu haurrak bere antigorputzak eta orduan jakin ahal izango da antigorputzak bakarrik

transmititu dizkion ala birusa ere bai.

### 7.- Zergatik kutsatzen dira homosexualak errazago?

Koitoa uzkitik traumatikoagoa denez, zauri sakonak sor daitezke eta kutsatze arriskua handiagoa da.

Dena dela, ez da egia homosexualen artean ematen direla kasu gehienak. Odolaren bidez kutsatutako kasuak honela banatzen dira:

- %78a droga kontsumitzailea da eta xiringak edo antzeko materiala konpartitzeagatik kutsatua.

- %10a transmisio heterosexualen bidez.

- %5a transmisio homosexualen bidez.

### 8.- HIESa duen baten bizitza orobat aldatzen al da? Bizimodu normala egin al daiteke?

Segun eta pertsona gaixotasunaren zein fasetan dagoen, bai.

### 9.- HIESa duen batekin oheratzen banaiz, zor gortatuko zait?

Gaur egun asko hitzegiten da preserbatiboari, joko erotikoa eta arriskurik gabeko praktika sexualeri buruz. Halere, oraindik jendea kutsatu egiten bada prebentziorako neurriak ondo erabiltzen ez direlako da.

Seropositibo batekin oheratzeak ez du arriskurik beharrezko neurriak hartzen badira, hau da, penetrazio anal eta baginaletan preserbatiboa erabili, semenik ez hartu ahoan eta ez irentsi...

### 10.- Zor egin behar dut HIESaren prebentziorako?

Xiringarik ez konpartitu, ez eta bizarrak mozteko tresnarik, guraizerik, hagineta zepilorik... Odola sor dezakeen ezer ere ez. Harreman sexualetan beti preserbatiboa erabili.

### 11.- Zein oxbordintasan dago GIB

### **eta HIESaren artean?**

GIBa duena seropositiboa da. Hau da, birusa dauka eta kutsa dezake baina ez du gaixotasuna garatu. HIESa, aldiz, karentziak dituen sistema immunologikoa determinatzen duen sintomen kua-droa da, kanpotik transmititzen dena.

### **12.- Zergatik beldurtzen da oraindik jondea HIESa duen baten aurrean?**

Konnotazio sozial negatiboak dituelako. Orain arte HIESa gizartean gaizki ikusita zegoen jendearen artean garatzen zen batez ere (toxikomanoak, homosexualak, emagalduek...) eta horri sendabiderik gabeko gaixotasuna izatea gehitu behar zaio.

### **13.- Jonde nagusiak errozelo gehiago du gazteek baino. Informazio falta al da? Nola konpondu daiteke?**

Orain urte batzuetako ikerketa baten arabera, katoliko praktikante nagusiek aurreritzi gehiago zituzten. Aurreko galderan esan bezala, konnotazio sozialek eragin handia izan dute. Informazioa gehiago hedatu behar da etengabe eta jendeari ulerrarazi behar zaio gaixotasunak etorri egiten direla, inork ez dituela bilatzen eta inork ez duela zertan lotsatu gaixo egoteagatik.

### **14.- Ba al dago txerto ala farmakorik? Egongo al da? Zoin berezitasun du oraindik txertorik ez egoteko?**

Txertorik ez dago oraindik infekzioa ekiditeko baina gaixotasunaren tratamendurako farmakoak bai. Txertoa ateratzea zaila da birusa oso erraz egokitzen delako txertoen aurrean.

### **15.- Zoin da Udalararen Drogomenpekotasun Zerbitzuararen funtzioa?**

Prebentzioa eta informazioa ematea gaixotasunari buruz behar edo eskatzen duten pertsonen. Herritarren ekintzekin kolaboratzea. Giza Eskubideen babes. Mailegu ekonomikoari buruzko informazioa eta tramitazioa, etxex etxeko laguntza... Eskoletan osasunaren heziketarako programa eramaten dugu aurrera.

### **16.- Zoin orantzun jasotzen dute HIESdunek gizartearengandik?**

Badirudi gero eta erantzun positiboa ematen duela jendeak orokorrean eta HIESduna beste bat gehiago bezala ikusten dela gizartean baina, oraindik ere, badaude seropositiboak mezpretxatu, baztertu eta kritikatzeko dituenik eta birus honek askoz min gehiago egiten du GIBak baino.

### **17.- Zoin dira jakin behar gonituzkoen gauzak HIESa dutenak meroriz duten errospetuz tratatzeko?**

GIBaren aurka borroka daitekeela prebentzioaren eta informazioaren bidez, maitasuna emanaz eta ez bizkarra. Bizitza normala egiteak ez du arriskurik.

### **18.- Zoin arazo sor daitezko HIESdun baten familian?**

Gizartearen marginazioak  
a r a z o

gehi-  
g o  
sortzen  
ditu gai-  
x o a k  
b a i n o .  
Hau kon-  
ponduko  
b a l i t z ,  
beste edo-  
zein gaixo-  
tasun kroni-  
kok sor dit-  
zakeen arazo  
berberak izan-  
go lirake.

### **19.- Nola bizi HIESdun batok?**

Normaltasun osoz eta maitasun handiz.


### **20.- Kutsatu eta zenbat denborara detektatu daiteke HIESa?**

3 eta 6 hilabete artean. Leioa deitzen zaio etapa horri eta gorputzak denbora hori behar du birusaren

aurrean antigorputzak sortzeko.

### **21.- Zer egin behar dut? Non egiten dituzte frogak? Izona oman behar izaten da?**

Donostian HIESaren Prebentzioarako Planaren egoitzan (412727). Bilboko Eskualdeko Osasun Delegazioan (94-4881583), Gasteizen (945-



189280)  
eta Elgoibarraren etxeko medikuarekin.  
Kasu guztietan izena eskatzen da baina emaitzak sobre itxi batean medikuaren izenean bidaltzen dira.  
**22.- HIESak heriotza osan nahi al du?**

Denbora pasa ahala gero eta altuagoa eta kalitate hobekoa da bizi itxaropena. HIESa ez badu heriotzarekin lotzen askoz



## VIH/GIBari buruzko bizipenak eta gogoetak

*Jarraian agertzen den testua VIH/GIB duen elgoibartar batek idatzitako gogoeta bat da. Errotatxok duela bi urte kaleratutako orri batzuetan agertu zen bezala transkribatzen dugu guk orain eta hemen.*

**H**IESari buruz izan nituen lehenengo berriak ez ninduten estutu. EEBBetatik zetozen eta gay mundutik batez ere. Arriskutik kanpo nago! 1985. urtea zen. Sasoi hartan drogaren munduan sartua nengoen, hortaz, gizarte "eskuzabal" honek laister epaitu ninduen bezala, drogazalea eta "errudun" nintzen.

Hilabete batzuek beranduago HIESak jotako lehen biktima hil zen Elgoibarren eta haren atzetik beste batzuek etorri ziren. Guztiak ziren drogekin erlazionatutako pertsonak. Laister zabaldu ziren alarma soziala eta sentsazionalismoa. Jokabide "inmoral" zuten pertsonak lurperatzeko lanean zebiltzan mingainluzengand morboa eta plazerra sortu zen.

Haietako egun batean, nire lagun batek positibo eman zuen analisietan. Arrisku taldeetan egon nin-

tekeen kargua izanik, analisiak egitea erabaki nuen. Nik ere positiboa eman nuen. Akabo! pentsatu nuen. Hogei urte nituen eta mundua gainera erori zitzaidan. Komunikabideek deitu zuten "XX. mendeko izurria" geneukan. Ezaguna ez den guztiaren aurrean beldurtzen den gizarteak gaixoak baztertzten zituen: "seropositibo bati eskua emanez edo plater beretik janez gero kutsatu egin zaitzke, eta musuez zer esanik ez..." Inora eramaten ez duen histerismo kolektiboa.

Birusarekin elkarbizitzeari ekin genion. Medikuek ondo geundela esaten ziguten, gazteak eta sendoak ginela. Osasuntsuak geunden, gure



gorputzean lo zegoen baina esna zitekeen bidaiari bat egon arren.

Gaztetasun honek eman zigun bizitzen jarraitzeko eta beldurra gainditzeko indarra.

Baina oker nengoen analisi hark positibo eman eta dena amaitu zela pentsatu nuenean. Hamar urte igaro dira eta osasunez gainezka nago. BIZIRIK NAGO!

Hori bai, guztiok ezagutu beharko genituzkeen limitazio batzuekin. Nire galdera zera da: nor ez da bizi limitazioekin, seropositiboa izan ez arren? Seme-alabarik eduki ez arren, akaso ezin naiteke zoriontsu izan ama izan gabe? Ez al dago munduan VIH+ ez den gaixotasun larriak dituzten milioka pertsona, eta ni bezala, ausardiaz eta duintasunez bizi direnak?

Azken finean, zer naiz? Gizaki bat, beste edozeinek bezala, maitatu, negar eta sufritu egiten duena. Hori xe naiz ni, gizakia.

Benetan ikusten duzue zuek horren alde handia seropositibo bat eta ez den baten artean? Akaso ez gara denok berdinak? Ni seropositiboa naiz eta normala. Eta zuek?

(Erredakzioan itzulia)

**Libra**

**KAROBI  
PUB**

ELGOIBAR

Tel. 74 06 37  
San Frantzisko, 37

**Valenciaga**

**KONFEKZIOAK**

Tel. (943) 11 22 33  
Zuloagas, 1  
20600 EIBAR

**BIRE  
ELEKTRAGAIUAK**

SOINUA, BIDEOA, TELEKOMUNIKAZIOAK, SEGURTASUN  
ETA BIJILANTZIA SISTEMA ELEKTRONIKOAK, ANTENA  
KOLEKTIBO ETA PARABOLIKOAK.

Ubitarte, 3 - Tel. Faxe. 74 14 87 - 20870 ELGOIBAR

**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89



## HIESari buruz zalantza edo galderarik?



### **SERGIO ARCE**

**21 urte, elektronikoa**

Nire ustez jakiteko geratzen den gauza bakarra gaisotasuna sendatzeko zerbait ateratzea da. Gai-nontzean dena ondo azalduta dago eta informazio nahikoa dugu.



### **MARIA ANTIA**

**30 urte, etxekoandrea**

Azken urteotan informazio asko eman da eta arrisku taldeetan sartzen den jendeak ezagutzen ditu ondorioak. Gaixotasuna da ezagutzen ez duguna.



### **EDURNE GABILONDO**

**33 urte, inmobiliariako agentea**

Pertsonalki nahikoa informazio daukat eta ez diot beldurrik. Kezkarik handiena gazteek ematen didate, askotan ez baitira konsziente gerta dakiekenarekin.



### **FELICISIMO ESCUDERO**

**73 urte, jubilatua**

Etxean ez da horrelakorik gertatu. Galdera edo zalantza baino gehiago ardura daukagu. Biloba gazteak ditugu eta haiei gauzak azaltzea da gure kezka.



### **ANA VICARIO**

**25 urte, administraria**

Informazioa badago baina beldurra beti geratzen zaizu; azken batean, ez dakigulako nola bilaka daitekeen eta gauza berriak ager daitezkeelako.



### **JUAN JIMENEZ**

**42 urte, langabetua**

Informazio nahikoa daukagu kutsatzeko bideei buruz, baina gaixotasuna nola senda daitekeen ez jakiteak kezkatzen nau. Soluzioa oso urruti ikusten dut.

**ASESORIA  
GO/AR**

---

**AHOLKULARITZA**

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

Pedro Muguruza 5  
Tel 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

## ■ Ertainetako gurasoen urteko asanblada

Herriko Institutuan ikasten ari diren gurasoen urteko asanbladak datorren astelehenean eta asteartean egingo dira Bernardo Ezenarro ikastetxean. Hilaren 11n, astelehena, Arreiturren ikasten ari diren BBB/BUP, IEE/REM eta DBH/ESOk (12-15 urte) gurasoen asanblada izango da. Asteartean, berriz, hilak 12, Bernardo Ezenarro zentroan ikasten ari diren gurasoak bilduko dira, 16 urtetik gorako gurasoak, hain zuzen. Bi asanbladak arratsaldeko 7etan izango dira Ezenarro ikastetxean (Mekanika).

## ■ Deba Beheko zabor eta hondakinak

Deba Beheko Mankomunitateak 55 tona zabor sortzen ditu egunero eta 20.000 tona urtero. Horietatik Elgoibarren jasotzen diren hondakinak honela banatzen dira: 1,5 tona hiri hondakin solidoak; 44.676 kilo beira eta 99.087 kilo paper eta kartoi. Datozen hilabeteotan martxan jarriko da Hiri hondakin solidoen Plan Nagusia. Honen arabera Deba Beheko udalerrri guztietan jasotako zaborra Azpeitiko Lapatx zabortegira eramango da bertan erretzeko. Orain arte Arrasaten erretzen ziren gure eskualdeko zaborrak.

## ■ Presoei buruzko asanblada Kimetzen

Elgoibarko HBk euskal presoen Euskalerriratzeari buruzko bilerarako deia luzatu du datorren ostegunerako, hilak 14. Bilera Kimetz elkartean izango da. Ordua, gaueko 8ak.

## ■ Odol ateraldia

Datorren ostiralean, hilak 15, odol ateraldia izango da Odol Emaileen egoitzan (P. M. Urruzuno 8). Arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean egoitza pasatu daitezke aurrez deitutako emaileak.




## Urari buruzko erakusketa

Elgoibarko Udalak antolatuta, Gipuzkoako Ur Patzuergoak sortutako "Kaixo Ura" erakusketa ibiltaria Elgoibarren izango da hilaren 12tik, asteartea, hilaren 15era bitartean. Kultur Etxean ikusgai egongo den erakusketaren helburua Saneamendu Planaren eta finantziario kanonaren berri ematea da, bai eta uraren kultura berriaren oinarriak azaldu eta sakondu eta azken finean, gizartearen kontzientziatzea lortzea ere. Erakusketa 30 taulaz osatua dago, kontsorzioaren funtzioak, uraren ziklo integrala, Gipuzkoako ur-hor-

nidura, uraren tratamendurako etxeko funtzionamendua, etab.en berri ematen dutenak. Honez gain, Kultur Etxeko erakusgelan bertan depuradora txiki bat jarriko da, urtegitik jasotzen denetik etxetara iritsi arte uraren depurazio prozesua ikusi ahal izateko.

Hilaren 14an, arratsaldeko 7etan hitzaldi-azalpen txiki bat izango da kontsorzioaren kide baten eta Udaleko ordezkari baten eskutik. Erakusketaren ordutegia: goizez 10etatik 13etara bitartean eta arratsaldeko 16etatik 20ak arte.



**Eman Euskarari Berea** kanpainaren aurkezpena izan zen urriaren 31n Kultur Etxeko hitzaldi gelan. EKBk antolatuta, helburua euskara eta berreuskalduntze prozesuaren egoera larriaren kontzientzia zabaltzea da. Erretratuan Juan Mari Mendizabal EKBko burua ezkerrean eta Juan Mari Larrarte Gipuzkoako AEKko arduraduna ikus ditzakegu. Aurkezpenera 24 lagun joan ziren eta kanpaina abenduaren 14an Bilbon izango den manifestazioarekin amaituko da.



**Errotatxo Elkartea** burutzen ari den HIESaren asteari dagozkion ekintzak igandera bitartean luzatuko dira. Gaur, hilak 8, "Curita cañón" antzezlana ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian. Bihar, larunbata, futbol partidua jokatuko da Mintxetan eguerdiko 12,30etan eta domekan, HIESaz hil direnak omenduko dituzte. Argazkiak astean zehar izan diren ekitaldietako bat jasotzen du, medikuak eta GIBa duten gaixoen arteko harremanari buruzko hitzaldiaren unea, hain zuzen.

**Eskuz Tailerrak antolatu duen** margoketa tekniken ikastaroa martxan dago. Pedro Muguruzako eskola zaharretan ematen diharduen ikastaroa Eskuzek antolatzen duen lehenengoa da. Dagoeneko bost lagun ari dira margoketa teknika ezberdinak ikasten eta hiru astez jardungo dute zeregin horretan. Norbaitek apuntatu nahiko balu 74 08 01 zenbakira edo Muguruzako ikastetxera jo dezake arratsaldeko 3etatik 5etara, astelehenetik ostegunera bitartean.



## ■ Igandean Festa do Magosto ospatuko da

Galiza Etxekoek gaztainerre eguna edo Festa do Magosto ospatuko dute, domekan, hilak 10. Urteroko ohiturari leial, Galiziatik okasiorako espreski ekarritako 300 kilo gaztain erreko dira. Lagungarri modura Galiziako 600 litro ardo banatuko dira Galiza Etxera (Urasandi plaza) hurbiltzen diren guztien artean.

## ■ Mankomunitateko gerentzia aldaketa

Deba Beheko Mankomunitateko gerente izan den Juan Ignacio Escalac postua laga zuen irailean enpresa pribatu batean hasteko. Mankomunitateko arduradunek Jose Francisco Muniozguren, BADESAko zuzendaria izendatu dute Mankomunitateko gerente.

**Arreiturre Herri institutuko jolasgunea** herritar guztien erabilerrako izatea erabaki du ikastetxeko Eskola Kontseiluak. Helburu honekin San Roke-tik igotzeko dauden sarrerako eskilarak amaitzen diren lekuan hesi bat jarri dute. Hesiak bitan banatzen du ikasgunea eta jolasgunea. Lehenengorako sarrera klase-orduetan egongo da irekita eta jolasgunea, berriz, egunero iluntzerarte, larunbatak barne. Beraz, eskolarteko jokoetan ari direnek edo beste edozein herritarrek bi saskibalo gunea eta futbitorako zelaia ere erabili ahal izango ditu.

Luis Mari Agirregomezkorta:

## “El Corte Inglés da nire bezerorik leialena”

Duela 44 urte Elgoibarren jaio zen gizon honek ondo daki zer den negozioetan aritzea.

Baina enpresa mundua ezezik, badago berarentzat interes berezia duen beste afera bat, zera da, kirola, eta futbola, batez ere.

Agian horregatik egon da Luis

Mariren lanbidea kirolari lotuta aspaldi honetan. Hau da, zazpi bat urtez Rissan marka komertzialaren (Errealaren babeslea garai hartan) banatzaile izan ondoren, 1987a geroztik kirolerako produktu babesleak ekoizten dituen enpresa baten gerentea da.

**- Zein izen du enpresak?**

- Ostruka, eta Castellón probintziako herri txiki batean kokaturik dago, Rosell-en hain zuzen. Almazena, berriz, Elgoibarren dugu eta hango lanaz nere emazte Lorea arduratzen da.

**- Zer-nolako kirol produktu babesleak ekoizten dituzue?**

- Bereziki futbol taldeentzako espinilerak eta errodilerak, bai eta esku-baloitzaletzako kode-rak ere.

**- Zergatik Rosell-en?**


- Castelloneko probintzian oihalgintzan aritzen diren enpresa ugari daudelako eta industria arlo hau ondo menperatzen dutelako.

**- Zeini saltzen dizkiozue zure produktuak?**

- Batez ere, El Corte Inglés, Astore, Décimas, Joma eta Soluvi etxeei. Bai eta beste batzuei ere.

**- Hortaz, lehen mailako futbol taldeek ere bada-rabiltzate zure produktuak.**

- Bai, batzuek bai. Izan ere, nik euren patro-zinatzaileei (babesleei) saltzen dizkiet. Astorek, esate baterako, Erreala jutzen du, Jomak Gijon-eko Sporting-a eta Soluvi-



**“Carlos Xabierrek bere neurria egindako karbonozko espinilerak eskatu zitxuan fabrikatzeko”**

k Oviedo taldea. Bigarren mailako zenbait taldek ere nire espinilerak erabiltzen dituzte hala nola, Eibarrek eta Alavesak. Bi euskal talde hauek, Erreala bezala, Astorek jutzen ditu.

**- Sasoi batetik hona asko aldatu al dira espinilerak?**

- Bai, diseinuan, pisuan eta flexibilitatean batez ere. Orain arinagoak eta flexibleagoak dira. Diseinua, berriz, Taiwanetik dator.

**- Futbolari guztien espinilerak berdinak al**

**dira?**

- Antzekoak. Orohar kategoria handiagoko eki-poek eta futbolariak hobeto babestea nahi izaten dute; hau da, protekzio gehiagoko espinilerak eskatzen dituzte.

**- Exigenteak al dira futbolariak?**

- Lehenengo mailan jokatzen dutenen artean beti daude futbolari batzuk besteak baino exigenteagoak direnak. Esate baterako, gogoratzen naiz nola Errealean jokatu zaban Carlos Xabier por-

tugaldarrak neurria egindako karbonozko espinilerak eskatu zituen fabrikatzeko.

**- Ez zitzaion, bada, merke aterako.**

- Egia esan, ez. Espinilerak arruntak baino hamar edo hamabost aldiz gehiago ordaindu behar izan zituen, ze karbonoa oso garestia da.

**- Zaila al da bezeroak topatzea?**

- Negozio guztietan bezala ez da batere erraza. Gainera kompetentzia handia dago Taiwan eta Chile-rekin. Izan ere, hauen produktuak kalitate txarragoak diren arren, merkeagoak izaten dira.

**- Zein da zure bezerorik leialena?**

- El Corte Inglés. Honek Boomerang markarekin saltzen ditu nire espinilerak.

**- Zein futbol taldeakoa zara?**

- Errealekoa.

**- Futbolari bat?**

- López Ufarte asko gustatzen zitzaidan.

**- Entrenatzaile bat?**

- Rafael Iriondo izan zen onena niretzat.

**- Eta kirol kazetari bat?**

- Manu De la Fuente.

MAIA GOROSTIZA



# BARREN

L.H. eta D.B.H.ko IKASLEEKIN EGINDAKO 28. GEHIGARRIA




**H**erri Eskolako 6. mailako ikasleak Salamancan izan dira. Bidaia hau Estatu mailan Hezkuntza Sailak antolatzen duen "Escuelas viajeras" delako programaren barruan egin da. Elgoibarko Herri Eskolakoak Kataluniako eta Murciako taldeekin elkartu ziren. Bidaia honen helburua beste komunitateetako hurrekin harremanak izatea da eta, bide batez, topaketa honetarako aukeratu den komunitateko ohiturak, kultura eta bizimodua ezagutzea. Salamancako hiri monumentala ezagutzeaz gain hainbat irteera ere egin zituzten Aldeabavilako Zentral Hidroelektrikora, Bejarko mendi lerrora, Peña de Franciara, eta La Albercara. Egun hauetan oso ondo pasatu dute. Komunitate ezberdinetako haurren arteko harremana oso positiboa izan da beraien autonomia, erantzukizuna eta elkarlana garatu dutelarik.

## *Txistea*

Besapean ahatea duela dago gizon bat.  
Hurbildu eta galdetzen dio gazte batek:

- Nora zoaz txerrixo horrekin?
- Ez, ez barka; baina hau ahatea da.
- Zu isilik, ni ahatearekin ari naiz eta.



# Jakitunen eskutik

## komunikabideak eta komunikazioa

**G**ure gizartearen historiari erreparatuz gero, transformazio eta eraldaketa garrantzitsuak gertatu direla ikus dezakegu. XXI. mendearen hasiera honetan ere, eraldaketa prozesu berri baten aurrean gaude-la esan dezakegu.

Informazioaren eta informatikaren aroan gaude, "Iru-diaren Zibilizazioan". Eraldaketa honen gailurrean aurkitzen gara, egoerak berak dakartzan segurtasun faltaren tentsioan, tentsioan eta gatazkan murgildurik. Eraldaketa azkarregi doa, eta agian horregatik bizi duguna sakonki ulertzeko ikuspegi historikoa falta zaigu.

Gaur egun, IRUDIA komunikazio bide goren da eta idazkuntzak lengoaia baztertzea lortu ez badu ere, badi-rudi irudiaren teknikak bere nagusigoa inposatzeko indarra duela. Hori dela eta, belau-naldi berriek mass-mediaren iturrietatik edaten dute. "Errealitatera" komunikabideen bitartez hel gaitzake gaur egun, beraz, historia, mundua eta gizakiari buruz dugun ikuspe-gia estuki lotuta dago mass-mediak inposatzen dutenarekin.

Telebista sozializatorako oinarrizko bideetarik bat dugu familia eta eskolarekin batera. Batetik, medioak ageriko zeinu identifikagarriak, rolak eta portaerak erakusten dizkio gazteari, horiek erabiliz gaztea giza-taldean barnerratu eta bere portaera gizarte-ak onar dezan. Bestetik, interes ekonomiko

eta politikoek baldintzatutako natura eta munduaren ikuspegi zehatza eskaintzen dio.

Telebista saioen bidez gazteek guztiz sinplistik eta atzerakoiak diren portaera ereduak egiten dute topo. Telebistak aurkezten digun errealitatea desioekin lotura estua duen errealitatea da.

Bukatzeko, ikus-entzunezko komunikazioak gazteengan, hauen pentsamolde eta portaeran izan dezakeen eraginak biziki kezkatu behar gaitu. Komunikabideek munduari buruzko zein ikuspegi eskaintzen digute? Eta gazteak zein ikuspegi eratzten edo eraikitzen du? Kultura suntsitzen al dute? Inkultura al da komunikabide hauen kalitate falta? Dударik gabe, galderen zerrenda askoz luzeagoa izan liteke.

Gizakia eta bere ingurunea gure abiapuntua badira, erraza da eraldaketa honen eraginak ekar diitzakeen ondorio pedagogikoak antzema-tea. Horregatik, komunikabideen aurrean izan beharko genukeen jarrera kritikoa garatu ahal izateko KOMUNIKABIDEEN PEDAGOGIA planteatu beharko litzateke. Ikus-entzuteko programa hobeen eskaera eta ikus-entzunezko komunikazio moduen ikerketarekin batera, sorkuntza eta komunikazio aktiboan oinarritutako heziketa garatu beharko litzateke, gaur egungo gazteak mezu igorle ere izan daitezten eta ez soilik beste batzuek eraturako mezuen hartzaile hutsak.



Izaskun Arozena

## Zer iritzi daukazu ..... *helduei* buruz?



*Ba, bete-behar bat betetzeko eran eta ez baldin badugu betetzen zigorri edo zaplanteke bat jasotzen dugu. Oro aurpegi handia dute!*

AINGERU OSORO. 12 urte



*Lan asko egiten badute gazteak berala sentitzen dira baina ez badira mobilitzen oro gairiki egoten dira batzuk.*

ANE LARRANAGA. 10 urte.



*Helduak beti daude txiki-ci agintzen. Beraien nahi dutena esin behar dugu beti. Ze morro!*


PATRICIA MENOR, 12 urte.



**Blagov Kutnik**  
13 wt vg

## Galde debalde

- 1- Zer izan nahi duzu handitan?
- 2- Boligrafoa ala arkatza?
- 3- Zein ikasgai kenduko zenuke?
- 4- Nor nahi zenuke nobia/o bezala?
- 5- Zer eramango zenuke irla batera?
- 6- Meriendarik onena?
- 7- Ba al daukazu amuletarik?
- 8- Zer egingo zenuke ilean?



**Ardo Eupen**  
6 wt vg

1. Aktoria, famosua izateko.
2. Boligrafua ze arkatzak bihartzian kailuak ateratzen dizkitx.
3. Matematika, zaila dalako.
4. Pamela Anderson.
5. Nere nobixia, janari mordua eta kanping-a.
6. Philadelphia.
7. Bai, mineral bat. Examinetara eruatzen dot beti.
8. "A lo afro" ipini.

1. Pelukera.
2. Arkatza ze hola zeozer geizki eitxen badot borrau ein leike.
3. Kopiaketa.
4. Ondiok txikixa naiz horretarako.
5. Erropia, janarixa eta bainujantzia.
6. Tostadak paterekin.
7. Ez.
8. Permanentea.

## Zer da... *beldurra* ?

**ESTIXU IDISARRI 8 wt vg**



Otso baten aurrean ikara izatea.

**JAIDO JUARDISTI 11 wt vg**



Gauza bat gaizki egiten duzunean sentitzen duzuna.

**LUCIA SEGUDA 8 wt vg**



Gorputza dardarka duzunean, hori da beldurra.

**DESIDEE LOPEZ 9 wt vg**



Beldurra ganean bakarrik geratzea edo kalera joatean gauza beldurgarriak entzutean sentitzen duzuna da.

**AITOR AZKUE 11 wt vg**



Leku ezezagun, arraro edo ilun batean sortzen den sentipena.

**ITSASO GARITAGOTIA 9 wt vg**



Dena iluna dagoenean eta bakarrik zaudenean sentitzen duzuna.



# Denborapasak: ezetz asmatu!

**1. Nor da aktorea hau?**



**2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?**




**MAITANE DIEZ**  
7 urte


"Futbolian jolasteko baloi bat, Barbie bat orrazteko eta erropak ipintzeko eta marrazki bat nik nahi doten kolorekin margotzeko".

**JON AGIRREGOMEZKORTA**  
13 urte

"Leengo milionarixua izatia nahi doten guztia erosteko, kotxia, txaleta... Bigarrena, Erregia izatia, nahi dotena ein, jendiari agindu eta gauza onak eitzeke. Eta hirugarrena, eskolarik ez egotia!".



**3. Zenbat izozki daude?**



**4. Asmakizunak**

- Mendian jaio mendian hazi sukaldera etorri eta dantzan hasi  
Zer da?.....
- Zor, ez dut ezer zor baina ia esan dizut guztia.  
Zer da?.....
- Bizkarra zuri-zuri eta lau zango harantz salto eta bertan lo.  
Zer da?.....

**ERANTZUNAK:** 1.-Anuska Lasa 2.-Zein hiru desio eskatuko zenitzikoke jainu bati? 3.-19 izozki 4.-Erratza, Zorria eta Ohea.





## Marga Marciales

### Lopez dendakoa



- **Kiniela edo loteriarik erosten al duzu?** ▶ Ez, zortean sinesten dut baina ez daukat erosteko ohiturarik.
- **Lehiaketaren batean hartu al duzu parte inoiz?** ▶ Ez.
- **Dutxa ala bainua?** ▶ Dutxa.
- **Zenbat ordu egiten duzu lo?** ▶ Normalean 8.
- **Eta siestarik?** ▶ Ez, hori ez.
- **Ezkonduta ala elkarrekin bizi?** ▶ Elkarrekin bizi.
- **Umetan komikiak irakurtzen al zenituen?**  
▶ Ez zitzaizkidan gustatzen.
- **Zein "goxoki" jango zenuke?** ▶ Richard Gere.
- **Zer bilduko zenuke zelifan paperaz?**  
▶ Umetatik dudak pelutxe handi bat, oso berezia da niretzat.
- **Zer tiratu nahi zenuke txikle bat bailitzan?** ▶ Dirua.
- **Zerk jartzen zaitu pika-pika eginda?**  
▶ Oso umore onekoa naiz, lasaia.
- **Zerk uzten zaitu izoztua?** ▶ Gertuko pertsonen heriotzak.
- **Zein pin eramango zenuke gustura?**  
▶ Zipo metxeroaren bat daukat.
- **Txorizo ogitartekoa ala natazko boiloa?** ▶ Txorizo ogitartekoa.
- **Gogorutzen al duzu umetan zein paga ematen zizuten?** ▶ 25 pta.
- **Eta zer erosten zenuen?**  
▶ Aurreratu eta gero amari ematen nion oporretan joateko.
- **Gaur egungo haurrek zenbat diru gastaten dute?**  
▶ 200 pta eta gehiena gominolatan.
- **Zinera palomitarik eramaten al duzu?** ▶ Ez.
- **Txokolatzalea al zara?** ▶ Bai, batez ere "depre" nagoenean.
- **Produktu light-ak kontsumitzen al dituzu?** ▶ Normalean bai.

## ZEIN ETORKIZUN ESPERO DEZAKEGU

**DOINUA:**

Ari naizela, ari naizela

Jende pila bat geldirik dago

lana dute arazoa.

Datuei kasu eginez gero

gazteak dira mordoak,

arazo honi tripak zabaldu

eta aurkitu erroa.

Langabezia izaten da maiz

gazteon ofizioa.

Gaur egun dugun egoera hau

bai dela triste xamarra,

nahiz eta beti pizturik izan

esperantzaren izarra.

Pauso honetan etorkizunak

dauka kolore bakarra.

Hainbat denbora ikasten eta

geldirik egon beharra.



ION GARATE

- Kontabilitate

- Lan

- Fiskal



**URKIDI**

**AHOLKULARITZA**

**ASEGUROAK**

Kalamua 12

ELGOIBAR

Tel-Fax:

74 18 91



**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:

Antonio Arrillaga, 6-8

behea

83 Postakutxa

Tel. 74 33 44 - 74 06 92

Fax 74 37 11

Biltegia:

Arregitorre, 10 - 14 behe

Tel. 74 20 38 - 74 23 71

**20870 - ELGOIBAR**

**Gipuzkoa**

## Herrian OTA ipintzea aztertzen ari dira Udalean

**Elgoibarren aparkalekuarekin dauden arazoak ikusita, enpresa bati gaia aztertzea eskatu zitzaion. Txostenaren arabera, irteerarik onena, herri barruko hainbat puntutan OTA jartzea litzateke: Trenbide (Bernardo Ezenarrotik Isauroraino), Uruzuno, San Ignacio eta Santa Ana kaleetan eta baita Plaza Txikian eta Ubitarten ere.**



Plaza txikia ere sartzen da OTA guneen barruan.

**I**a 300 aparkaleku geratuko lirateke OTArekin, proiektua aurrera eramanez gero. Jabier Oñederra sargentoaren hitzetan, “gaur egun egoten diren arazoei konponbidea eman behar zaie. Ez da posible zenbait tokitan aste osoa kotxeak mugitu ere egin gabe egotea. Askoz rotazio handiagoa egon behar da, kontuan izan behar baita kanpotik datozenak askotan ez dutela non aparkaturik izaten”.

Oraindik ere zehaztu gabe dagoen arren, ordu t´erdiko tar-teak izan daitezke eta horiengatik hainbesteko bat ordaindu beharko litzateke. Ordutegia, berriz, 9etatik 1,30etara eta 4,30etatik 8etara astegunetan eta goizeko 9etatik 1,30etara larunbatetan. Hori bai, inguruan bizi diren auzotarrentzat txartel bereziak diseinatuko lirateke.

### Alkorta eta Goikoeerota

Oñederra sargentoak gaineratu duenez, badira herrian aparkaleku asko jendeak erabiltzen ez dituenak. “Esate baterako, Alkortako telar zaharrian ixa 65 kotxe sartzen dia eta gaur egun ez dira apenas 10 egoten. Hor dago, baita ere,

Goikoeerota. Han 100 aparkaleku daude eta 30 auto inguru egoten da. Horiek aprobetxatu egin behar dira”. Era berean, jakin izan dugunez, negoziazioetan ari dira Arriola atzeko terrenoetan aparakalekuak egokitze. Gaur egun bakar batzuek erabiltzen dute zona hura eta behar bezala argiztatu eta txukunduz, kapazitate bikoitza izango luke.

### Errotondak

Orain pare bat aste jarri zen martxan Santa Ana kaleko errotonda berria. Plan orokor baten barruan sartzen da aipatu errotonda eta aurrera begira eta epe laburrera, Bernardo Ezenarro kalean ere, San Rokerako bidegurutzea dagoen tokian hain justu, beste errotonda bat egiteko asmoa dago. “Inguru horretan beti daude arazoak, bai zebrabidea inork ez duelako errespetatzen bai eta Bernardo Ezenarroetik etorri eta San Rokerantz jo nahi duen kotxearentzat. Irtenbide bat izango litzateke Trenbide kaleko aparkalekuari zati bat jan eta errotonda eraikitzea”.

## Hiru lanpostu

OTA jarriko lukeen enpresak hiru pertsona kontratatuko lituzke bai aparkalekuak kontrolatu bai eta jendeari beharrezko informazioa emateko ere. Oñederraren hitzetan, “pertsona horiek enpresak kontratatuak izango liake, baina elgoibartarrak”.

Kostu aldetik ez omen du gastu handia suposatzen, “alde batetik, orain bi urte margotu genituen azken aldiz kaleetako seinaleak eta orain berrituzkotan gara, beraz, ez litzateke gehiegizko kontua izango. Makinak enpresak jarriko lituzke eta apenas kosturik duten”. OTAren bidez jasotako diruaren zati bat Udalak eskuratuko luke eta hori herrian inbertituko, “Donostian, esate baterako, garraio publikoan inbertitzen dute”.

Honekin batera, erdi aldeko kaleak peatonalizatzea ere pentsatzen ari dira, kotxeentzat sarrera itxiz. Horretarako, “karga eta deskargarako tokiak bilatuko genituzke”. Hori lortzeko orain arte piboteak jarri izan dira, “baina ingurua zikindu eitzen dau. Pentsatu nahi dou araudia ganoraz jarritxa nahikua izango dala”.

Momentuz proiektua baino ez da hau guztia. Urtea amaitu baino lehen martxan jarri nahi den arren, oraindik eztabaidagai da Udalean.

## Altzolako torrekua (I)

■ Dorretxe hau Altolako ibaiaren eskuin aldeko azken eraikina da. Trenbideak eta errepideak mugatzen dute Torrekua. Alboan Itzein baserria dago nahiz eta duela urte gutxi batzuk arte hauen bien artean Martzelino etxea zegoen.

■ Gaur egun errepide ondoan dagoen arren eta honek, 1953. urtean eraiki zenean, Deba ibairako bidea moztu bazion ere, data horren aurretik eta zenbait mendetan barrena ibaiak eskaini zion aberastasuna.

■ Oinplano karratua eta lau isurkitako teilatua duen dorretxea da. Eskantzuetan, aintzinako baogunetan (leiho eta ate batzuk) eta hego aldeko fatxadako beheko zatia kararrizko harlanduz eraikiak dauden bitartean, gainontzeko harmora sendoak harlangaitzez eginak daude, gehienak zarpeatuak. Gaur egun sotoa, lehen eta bigarren solairuak eta ganbara ditu baina garai batean ez dirudi ganbararik zuenik, horretan eta eskantzuetan antzeman daitekeen moduan.

■ Eraikina oso aldatua dagoen arren, belaundali asko bizi izan baitira bertan, aintzinako arkitektura-elementuak gordetzen ditu oraindik ere. Zaharrenak sotoan daudenak dira.

■ Etxeko sarrera gaur egun hego aldean dago eta ate dinteldu batez eratua dago. Honen alboetan leiho bana dago harlanduz eginak eta eskuin aldera beste leiho berri bat dago.

■ Aintzinako leiho bietan barru aldetik jarleku kurioso batzuk kontserbatzen dira. Atearen kanpoko aldetik eta eskuinean, abereak lotzeko bi zirgilo zeuden nahiz eta gaur egun bakarra mantentzen den. Ataburuaren parerainoko horma harlanduzkoa da. Lehenengo solairuan hiru leiho daude eta ganbaran leiho txiki bat.

■ Ekialdeko fatxadako sotoan aintzinako sarrera bateko arku zorrotz eta gezi leiho bana daude itsutuak. Lehenengo eta bigarren solairuetan eta ganbaran dauden bost baogunak berriak dira eta aintzinako harlanduzko ate dinteldu itsutu bat aurkitzen da.

PELLO ARRIETA



## Petra Arostegi Aizpurua (1891-1986)



● 1891ko uztailaren 1ean Sallobenteko "Antxola erdikoa" baserrian jaio zen.

● Bost anai-arreba ziren, bera nagusia.

● Zortzi urte bete orduko soron lan egiten zuen. Bere bizitzan lan asko egin behar izan zuen, eta beti izaten zuen gogoan nola 16 urterekin Armaitxa behekoa baserrira joan behar izan zuen lurrez betetako saskiak igotzera, denak mutilak zirelarik bera izan ezik.

● 21 urterekin Argingua baserrira ezkondu zen eta bederatzi seme-alaba izan zituen, hauetako bi Espainiako gerra zibilean hil zitzaizkionak: Nicasio, Terueleko frontean, 1938ko urtarilean eta Pedro, Leridan, 1938ko maiatzean.

● 72 urterekin kalera etorri zen bizitzera eta 3 urte geroago alargundu zen.

● Zaharren egoitza egin zutenean lagunekin joaten zen eta oso zoriontsu bizi zen. 88 urterekin joateari utzi behar izan zion pena handiz, osasun arazoengatik.

● 1986ko urriaren 18an hil zen.

JUANITO GOROSTIZA

**KEMEN** Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN  
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA  
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

**OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 20 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 20 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



## MOTZAK

### Karakatera III. igoera hilaren 16an

Datorren larunbatean, hilak 16, Urgazi Triathloi Taldeak eta Morkaikok elkarlanean antolatzen duten Karakatera III. Igoera izango da. Lasterketa herrikoi honetan parte hartu nahi duten guztiak goizeko 10etan Plaza Handian egon beharko dute. Lasterketaren ezaugarri nagusia Karakate gainera korrika igotzen dela da, horregatik, fisikoki oso ondo prestatuta dauden kirolariek hartzen dute parte.

### Behobia-Donostiara lasterketarako autobusa

Domekan, hilak 10, goizeko 8,30etan aterako da Behobia-Donostia lasterketarako autobusa King-Kongeko zubitik. Itzulera eguerdi aldera izango da. Udal Patronatuak aditzera eman nahi du oraindik izena eman daitekeela 74 44 15era deituta.

### Mendi federatu kametak

Morkaiko Mendizale Elkartek 1997ko karneten berritze prozesuari ekingo dio. Horregatik, lehen aldiz federatu karneta egin edo karneta berritu nahi duenak aurrez aditzera eman beharko dio Morkaikoren zuzendaritzari, abisatzen ez bada, ez baita karnetik tramitatuko. Eman beharreko datuak jaiotze data, NANA, zein kobertura mota nahi duen bakoitzak, kontu korrante zenbakia (20 zenbaki) eta telefonoa dira. Datuak emateko 74 02 97ra deitu ostiraletan 7,30etatik aurrera edo larunbatetan 11,30etatik 1ak arte.



Ignacio Perez:

### "Mahattan-en korritzea gustatuko litzaidake"

■ **Prest Behobia-Donostia korritzeko?** - Orain ez nago oso ondo prestatuta, laneko bidaiak bat programatuta neukalako. Hala ere, 1h35' egiten saiatuko naiz.


■ **Pilar Arriolarekin zoaz, ez?** - Beti korritzen dugu elkarrekin. Laguntza handia izaten da neretzat. Berak hasiera indartsuagoa dauka eta gero errelebuak egiten ditugu.

■ **Zatirik txarrena?** - Miracruzeko gaina. Hara heldu orduko 15 kilometro eginak dituzu eta hanke igarri egiten dute.

■ **Zenbat aldiz egin duzu Behobia-Donostia?** - Bost aldiz. Azken urteotan 1h30' edo 32' egin izan dut.

■ **Zein beste lasterketa korritu izan duzu?** - Behobiakoaren ostean, Santurtze-Bilbo, Valmaseda-Valmaseda eta azkenik, Gasteizeko marathoi erdia. Valmasedakoa izugarri polita da eta Gasteizkoa, berriz, gogor xamarra. Orain bi urte oso eguraldi eskasa tokatu zitzaigun. Hirigunetik kanpo hotza demasekoa zen eta kaleetan zehar bihurtuak besterik ez zeuden. Erabat lurjota amaitu genuen. Iaz, berriz, ez zen hain gogorra izan eguraldia hobea izan baitzen.

■ **Lasterketarik gogorrena, ordea, Karakatera igoera.** - Bai, dudarik gabe. Pare bat kilometrotan



140 pultsaziotik gora jartzen zara Duela hiru egin nuen, partehartzeagatik. Aurten Susok iazko errekorra hautsiko duela uste dut.

■ **Korritzea nahiko zenukeen lasterketa?** - Iaz Izaskun Estibari-zekin Manhattan-era joatekotan egon nintzen baina Tenerifera oporretara joateko aukera atera zitzaidan. Hala ere, gustatuko litzaidake Manhattan-en korrika egitea.

■ **Lehen marathoia izango litzateke.** - Bai, baina argi daukadana da marathoi bat egitekotan, ez litzatekeela hala edo nola amaitzeko izango. Horrelako lasterketa bat egiteko ondo prestatua egon behar duzu, bestela lesioak etor daitezke. Marathoia egin dutenek 30. kilometrotik aurrera oso gogorra dela komentatzen dute.

■ **Zenbat urte korrika egiten?**

- 23. Soldadutzatik etorri eta tabakoa utzi eta, palan eta korritzen hasi nintzen. Dena den, gaztetan futbolekin ibili izan naiz. Orain saltakarekin eta bizikletarekin nahikoa daukat.

• **Adina: 41**  
 • **Korrikalari bat? Carl Lewis**  
 • **Maniarik kirola egiterakoan? Bat ere ez**  
 • **Korrika egiteko leku bat? Eguraldi onarekin Elgoibarko edozein txoko**



**HISPANIA ZURICH**

**J. Romera**

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Arte kale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

**Baserriko haragietan berezia**

**Harategi Urdaitegia**

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40



# ELGOIBARKO SASKIBALOI TALDEA

## Igoeraren bila

Bigarren denboraldia da aurtengoa Elgoibarko Saskibaloi taldearentzat. Iaz eratu zen taldea eta aurtun 14 jokalaririk daude. Entrenatzaile lanetan Jose Juan Gabilondo eta Gorka Sastre aritzen dira. Aurtengo denboraldirako zein asmo duten galdetu eta euren bigarren erregionaletik igotzea nahiko luketela erantzun digute. Animo, bada!

Urriaren 26an hasi zuten liga elgoibartarrek. Partidu bat galdu egin zuten faboritoen aurka eta bestea irabazi. Igoeraren bila arituko dira aurtun, Jose Antonio Etxeberriak esan bezala, "esperientzia gure kontra dagoen arren". Esperientzia ezak ez die, ez, entrenatzeko gogorik kentzen. Aste-an bi aldiz entrenatzen dute, Ikastolan astelehenetan eta Kiroldegian asteazkenetan, hiru bat orduz astean. 96/97 denboraldian 14 taldek jokatuko dute, bi bueltan, 26 partidu.

### Babesleak

J. A. Etxeberriaren hitzetan "babeslearen gaia lotu gabe daukagu oraindik baina Txankakua Merkataria eta Zerbitzu Elkarteak iaz bezala, laguntza emango digun esperantza daukagu. Udalak bere aldetik, oraindik zehaztu gabeko diru laguntza emango digu eta astean behin Kirol-

degia uzten digu entrenatzeko.

### Bazkide kanpaina

Saskibaloi Taldeak 250.000 pta.ko aurrekontua dauka gutxi gorabehera. Berau osatzeko jarraitzaileen laguntza behar-beharrezkoa dute. Hori dela-eta, bazkide kanpaina antolatu dute bigarren urtez. Aurtengo kuota joan den urteko bera da, 500 pta. Bazkideen laguntzaren ordain modura, partiduetako atsedendietan saskiratze txandak egingo dira. Hau da, nahi duten guztiek minutu bat izango dute tiro libre bat, hiruko saskiratze bat eta kanpo erditi saskiratze bat lortzeko. Lehen minutu erdian tiro libre eta hiruko saskiratzea lortuz gero, 3.000 pta.ko saria irabaz daiteke. Honez gain, denboraldi amaieran bazkideen artean bi pertsonarentzako afari bat Gabi jatetxean zozketatuko da, 20.000 pta.koa



San Bartolome jaietako txapelketan aterako argazkian, tente, ezkerretik hasita: Antxon Elustondo (kanpoko ordezkaria), Aitor Mendikute, Gorka Regil, Lordi Txurrutxa, Andoni Rementeria (gaur egun ez du jokatzeko), Alex Aranzabal eta Gorka Sastre. Makurtuta: Mikel Artola, Ramses La Hoz, Jose Juan Gabilondo, Asier Gabilondo eta Jose Antonio Etxeberria. Argazkian falta direnak: Aitor Rementeria, Fran Rezoila, Zigor Aizpurua eta Jon Urbieto.

## KIROL

### EMAITZAK

#### Futbola

Urki A 0 - Elgoibar 3 (2. jubenilak)  
Elgoibar 4 - Zumaia 2 (Neskak)  
Elgoibar 1 - Antoniano 0 (1. erreg.)  
Elgoibar 2 - Zumaia 0 (Jubenilak)  
Elgoibar 1 - Real Unión 1 (Kadeteak)  
Tolosa 1 - Haundi 0  
S. Herrera 4 - Elgoibar 1 (Infantilak)  
Elgoibar 3 - Soraluze 3 (2. jubenilak)  
Pedrusko 1 - Antzuola 3

#### Saskibaloia

Elgoibar 54 - S.T.L. Uztapide 51

#### Eskubaloia

Unceta Elgoibar 22 - Legazpia 8 (Kad. nesk.)  
Pneumax Elgoibar 32 - Almen 2 (Kad. mut.)  
Don Bosco 20 - Tecnomeca Elg. 21 (Jub. mut.)  
Hyundai Elg. 23 - Pasaitarra 25 (Seniorrak)  
Hyundai Elg. 21 - Hernani 19 (Seniorrak)

### AGENDA

#### Futbola, Mintxelan

##### Larunbata, 9

10,15 Gazteak - Bergara (2. jub.)  
12,00 Elgoibar - Eibar (Beteranoak)  
17,00 Haundi - Touring  
18,45 Eibartarrak - Gernika (Neskak)  
Igandea, 10  
08,30 Gazteak - Eibartarrak (2. erreg.)  
10,15 S.D. Intxaurren - Elgoibar (1. erreg.)  
12,00 Elgoibar - Tolosa (Infantilak)  
13,30 Urki A - Aretxabaleta (2. jub.)  
1,515 Eibar Urko - Retuerto (Jub.)  
17,00 Eibar - Euskaldunak (Kadeteak)  
18,45 Beti Sutan - Urki (2. erreg.)

#### Eskubaloia, Kiroldegian

##### Larunbata, 9

16,00 Tecnomeca Elg. - Leizaran (Jub. mut.)  
17,30 Unceta Elg. - Bergara (Kad. nesk.)

#### Areto futbola, Kiroldegian

22,10 Elgoibar - C. Extremeño (1. maila)  
23,10 Elgoibar - Patxaran Navarra (Auton.)

#### Futbitoia, Kiroldegian

Igandea, 10 (Arbitraia: Spartak Braga)  
09,00 Bokordo&Bofino - Orbela  
10,00 Berrogei Duro - S. Pitxote  
11,00 Aurtun Bai - Kunta Kinte  
12,00 Zazpi - Udaberrri

## ELGOIBARKO XVII. FUTBITO TXAPELKETA



Orain arte Urasandiko Futbito Txapelketa izan dena, Elgoibarko Futbito Txapelketa bihurtu da. 96/97 denboraldian partiduak Kiroldegian jokatzen ari dira eta ez Urasandiko kanpoetan. Hortik izen-aldaketa. Urtero bezala, areto futbolekoak ari dira antolakuntzan, izan ere, aurtun Jose Ramon Iriarteri tokatu zaio lanik gogorrena. Lehen partiduak urriaren 13an jokatu ziren eta txapelketaren lehen fasea otsailaren 3an amaituko da. Saillkapeneko lehen postuetan geratzen direnek Liga jokatu dute eta gainontzekoek Kopa. Zorte on denoi!



### ORBELA HANBURGESERIA taldea

- **Jokalariak:** Atzetik hasita, ezkerretik eskumara: Paco Iglesias, Elías Pérez, Cándido Romero, Angel Romero eta Fernando Romero. Makurtuta: Juan Carlos García, Josu Moya, Juan Romero eta Jose Ramón Moya. Argazkian Asier Matute falta da.
- **Izenaren zergatia:** Eibarko Orbelak hanburgeseria delako babeslea.
- **Sorrera urtea:** Orbelak bezala bi urte daramatzate baina taldeko gehienak, bi izan ezik, duela 11 urte hasi ziren batera jokatzen. Lehenago Garajes García izena zuten.
- **Adina:** Gazteenak 18 urte ditu eta 32 zaharrenak.
- **Lorpenak:** Azken bi urteotan Urasandiko Futbito Txapelketako Ligako txapelkunak izan dira. Honez gain, beste herri batzuetako txapelketetan ere parte hartzen dute. Plazentzia, Eibar eta Debako txapelketan irabazle izan dira bi urte jarraian eta Zaldibar eta Durangoko txapelketetan iaz jokatu zuten lehen aldiz. Emaizta ezin zitekeen beste bat izan: bietan txapelkunak izan ziren. Honez gain, Juan Romero 4 urtetan izan da golegilerik onena eta Paco Iglesias hiru aldiz gol gutxien jaso duen atezaina.
- **Aurtengo asmoak:** lazko titulua berreskuratze asmoa dute, "gogorik ez zaigu falta" aitortu digu Juan Romerok.
- **Bitxikeriak:** Romero abizena duten guztiak anaiak dira bai eta Moya deitura dutenak ere. Honez gain, euren artean lehengusurik ere ba omen dago.

## GOLAK

### ● GOLEGILERIK ONENAK:

**A TALDEA:** Roberto Mejuto (PSK) 6

**B TALDEA:** A. Retolaza (B. Duro) 2

### ● GOL GUTXIEN JASO DUTEN TALDEAK:

**A TALDEA:** Sporting Braga

**B TALDEA:** Karkis

## S A I L K A P E N A

### A Taldea

	Jokatuak	Irabaziak	Berdinduak	Galduak	Puntuak
1. KOSAKOS	3	2	1	0	5
2. SANROKETARRAK	2	2	0	0	4
3. SPORTING BRAGA	3	1	2	0	4
4. P.S.K.	2	1	1	0	3
5. MASER	2	1	0	1	2
6. SORPRESA	3	0	2	1	2
7. MENISCO	3	0	2	1	2
8. BAR HERMINIOS	3	1	0	2	2
9. IKUS OPTIKA	3	0	0	3	0

### B Taldea

	Jokatuak	Irabaziak	Berdinduak	Galduak	Puntuak
1. KARKIS	1	1	0	0	2
2. KUNTA KINTE	1	1	0	0	2
3. AURTEN BAI	1	1	0	0	2
4. BERROGEI DURO	1	0	1	0	1
5. BOKORDO & BOFINO	1	0	1	0	1
6. SPARTAK PITXOTE	1	0	0	1	0
7. UDABERRI	1	0	0	1	0
8. ZAZPI	1	0	0	1	0
9. ORBELA	0	0	0	0	0

## Errosariooko Amabirjinaren irudia berritzeko eskea

**Errosario kale erdi-erdian dagoen kutxan urtetan egon den Amabirjinak Donostiara aldeko bidaia egin zuen joan den ostegunean. Zertarako? Bi mendeko bizi luzearen ostean konponketa eta itxuraberritze beharra zuelako. Abenduaren 7rako berriz bueltan edukitzea espero dute errosariotarrek debozio handiaz gain oso estimatua duten Amabirjina.**


**E**gun batean Amabirjinaren irudia erabat hondatuta zegoela konturatu zen honen ardura duen Ignacio Mugerza. “Amabirjina garbitzen naola pusketak jausi jatazen. Benantzio parrokuari esan nion eta honek ezagutzen zaban restauradore bati esan zio-gun ia konponduko zaban”. Amabirjinaren irudia egurrezkoa da, errestauratu behar duen espezialistaren esanetan, XVIII. mende hasierakoa. “Egurrezkua izaterakuan, hainbeste urtian eurixa eta umedade galantak soportau bihar izan ditxu eta ziharo dau puskaute, zerrautsa alde guztixetatik

ertetzen jako. Kajoiak ointxe dakan teilatua gure aitxa zanak ein zion baina hala ere usteldu ein da”.

Ignacio “Ruso”k eta Juanito Gorostizak komentatu digutenez, “gaineke pintura kapak kendu eta kapa berri bat emango jako, kajoian kristalari zirikitxuak laga bentilazioa euki deixan eta beste mejora batzuk eingo jakoz Amabirjinari eta umiari”.

### **Egilea, ezezaguna**

Amabirjinaren irudia nork egina den ez daki inork. Honen inguruko datu bakarra zera da: Iberok XVIII. mende hasieran egindako arku batean jarri zutela hasieran. Gero



**donostiako errestauratzaile batek egingo dizkio konponketak Amabirjinari.**


arkuak traba egiten zuelako kendu egin zen eta Amabirjina gaur egun

dagoen lekuan jarri zuten. **Diru eskea**

Amabirjinaren irudiaren konponketa lanak ordaintzeko borondate oneko herritarren laguntza behar-beharrezkoa izango da. “Suskrizio popularra izatia nahi degu Errosario kalekuok, Kutxan kontu bat zabaldu degu nahi dabanak ahal dabana aportatzeko”. Berritzelane 200.000 pta. inguruko kostea izango dute. Abenduaren 7an ekarriko dute Amabirjina eta abenduaren 8an, Amabirjinaren egunean, inaugurazioa egingo dute, errezu eta kantuak eskainiz.

## 50 urteko debozio-lana

Ignacio Mugerza “Ruso”k 50 urte daramatza Amabirjinaren irudiaren arduradun. Rusotarren etxeko tradizioari jarraituz, aitak, Fernando Mugerzak, eman zizkion Amabirjina gorde-ta dagoen kutxaren giltza, eta Fernandoren aurretik honen aita izan zen zaindaria. “50 urtian sekula ez dot kale ein Amabirjinaren otoitzak izan dianian, ope-rauta eon nitzan urtian ere ez. Amabirjinak eman dian dohaina izan



da”. 15 urterekin hasi zen Ignacio Amabirjinaren zainketa lanetan aitari laguntzen. “Hasieran eskilaria eusten naban

aitzak Amabirjina apain zeixan, eta gero ni hasi nitzan haura zaintzen”. Zaindari izateak zera supoatzen du: loreak ipintzea, lantzean behin margotzea, garbi-tzea eta ahal dela dotoredore mantentzea. Beste urte mordoan ere, hala izan bedi!



## Aloña Aranburu eta Andres Bañuelos “Bi kultura elkartzea oso aberasgarria da”

Orain dela hiru urte beka batekin *Mexikora* joan zen *Aloña* Aranburu, 27 urteko elgoibartarra. Hasiera batean urtebeteko egonaldia izan behar zuena, hiru izatera luzatu zen. Alde batetik, oposaketa batzuk atera zituelako eta bestetik, *Andres Bañuelos* ezagutu zuelako, mexikarra bera. Mexiko D.F.n bizi dira. Bihar, hilak 9, *Loiolako Santutegian* ezkontzen da bikotea. Gero, Mexikora itzuliko dira.

- Beka batek bizitza aldatu zizun, Aloña.

*Aloña*: Bai. Enpresariales amaitu eta hemen ez zegoenez lan aukera handirik beka bat eskatu nuen. Ni prest nengoen edozein tokitara joateko, esperientzia berri bat bizi izateko eta Mexikora bidali nindutenez... Urtebeterako joan nintzen eta, hiru daramatzat dagoeneko.

- Oposaketa batzuk atera zenituen, ez?

*Aloña*: Bai. Espainiako enbaxadan egiten dut lan, komertzio bulegoan. Ni informazio departamentuko arduraduna naiz, Mexikoko egoera eta garapen ekonomikoa daramat nolabait eta informazio hori eskaintzen dut bai enbaxadan bai eta eskatzen duen edozein enpresariri ere.

- Nola ezagutu zenuten elkar?

*Aloña*: Mexikora joan nintzenean espainiar talde batekin egin nuen topo. Talde hartako mutil bat Administrazio master bat egiten ari zen Andresekin batera eta...

- Oso kultura ezberdinak al dira?

*Andres*: Gauza batzuetan bai baina gure artean oso komunikazio ona dago eta hori beharrezkoa da edozein bikotetan.

*Aloña*: Andresekin ateratzen nintzenean, bere lagunek niri galde-tu beharrean, Andre si galdetzen zioten dena, nongoa nintzen, nire



izena... Alde horretatik kostatu egiten da integratzea, askoz kultura matxistagoa da.

- Erraz ohitu al zara zu, Andres?

*Andres*: Bai. Gainera, ni Alemanian bizi izan nintzen bi urtez eta europar kultura ezagutzeko aukera izan nuen. Esperientzia horiek asko aberasten dute eta zeure baloreak egokitu egiten dituzu. Oso flexibleak gara biok, harreman batean biek eman behar dute asko eta bi kultura elkartzea oso aberasgarria da.

- Eta familiek nola hartu zuten?

*Aloña*: Ez zen arazorik egon. Hasieran, ezagutu arte beti dago errezeloa baina hori pertsona guztiekin gertatzen da. Ezagutu zutenean ez zen inolako arazorik egon.

- Elgoibar eta Mexiko D.F. Aldaketa handia, ez?

*Aloña*: Oso. Kontuan izan behar da han 23 milioi pertsona bizi direla, beraz... Askok harritu ninduen gizartean horrenbesteko aldea egotea maila sozialen artean. Aberatsak oso aberatsak dira eta pobreak oso pobreak. Denborarekin onartzen ikasten da baina gogorra da.

*Andres*: Elgoibarretan etorri nintzenean lehen aldiz harrিতuta geratu nintzen. Mexikon 10.000 biztanle dituzten herriek oso maila eskasa

dute, apenas zerbitzurik. Hemen, ordea, bizitza maila oso altua da. Uste baino askoz irudi hobea jaso nuen.

- Loiolan ezkontzen zarete.

*Aloña*: Bai, bihar. Gero, astebe-te pasako dugu hemen eta Mexikora berriz.

- Han bizitzeko asmoa duzue?

*Andres*: Momentuz bai baina gerora begira Europara etorri nahi genuke. Prest gaude gustatzen zai-gun edozein herrialdetan bizitzeko.

- Euskararik irakatsi al diozu Aloña?

*Aloña*: Hitz batzuk.

*Andres*: Kaixo, zer moduz? Ni ondo, eta zu? Neska polita, neska zatarra... Biok argi daukagu gure seme-alabei bion kultura erakutsi behar diegula eta hizkuntza oinarri-zkoa da. Nik ere ikasi beharko dut...

## Salerosketak

- ❖ Errepiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. **☎ 74 11 29**
- ❖ SAXO TENORE BAT erosiko nuke. **☎ 74 28 53**
- ❖ Bigarren eskuko lanparadun BI SOLARIUM-ohet salgai. Prezio eta egoera onean. **☎ 74 19 23 / 74 21 82**
- ❖ 103 cm-ko BEROGAILU elektriko bat saltzen da. **☎ 74 24 57**
- ❖ EHIZARAKO ESKOPETA salgai. **☎ 74 17 20**
- ❖ AKORDEOI BAT erosiko nuke. 96 bajukoa eta piano teklatura. **☎ 74 03 01**
- ❖ FORD SCORT R-S TURBO autoa saltzen dut. SS-AG. Oso egoera onean. **☎ 74 05 14/74 15 16**
- ❖ HIRU HUSKY SIBERIAR txarkurkume saltzen ditut. **☎ 74 41 45 Javi**
- ❖ ERREPIDEKO BIZIKLETA bat salgai. Kuadroaren tamaina 50. Campagnolo Mirage. 105 shimano kanbioak. 2 urte. 65.000 pta. **☎ 75 51 75 Javi**
- ❖ LIBURU hauek erosiko nituzke: "Intermediate Matters" (Ed. Longman), "The Heinemann English Grammar" (Ed. Heinemann) eta "Dublin People" M. Binch (Ed. Oxford. Bookworms kolekzioa). **☎ 74 07 74 Igor** (gauzez deitu)
- ❖ Golf GTI autoa saltzen dut, SS-AS. Oso egoera onean. **☎ 17 44 33**
- ❖ BIBOLIN BAT saltzen dut oso egoera onean. **☎ 74 26 35** Manuela
- ❖ REM/IEEko lehen mailako LIBURUAK erosiko nituzke. **☎ 74 12 91**
- ❖ BX-RE AUTOA saltzen dut. Egoera onean. **☎ 74 08 85**
- ❖ LOKAL BAT saldu edo alokatzen dut Urasandi kaleko 7an. **☎ 74 18 94/27 78 08** Angel
- ❖ Auto bat daukat saltzeko. TALBOT SOLARA. Egoera eta prezio onean. **☎ 74 30 02** (gauzez)
- ❖ ILARAKO MONOPATINAK saltzen ditut, lau erroberakoak. **☎ 74 20 95** Iban
- ❖ AUTO TELEGDATUA saltzen dut bateriarekin. Egoera onean. **☎ 74 22 75**

## Lana

- ❖ ARDATZA nekazal aldizkariak publizista bat behar du. Interesatuok bidali kurrikuluma: Ardatza, Simon Bolibar, 14 - 01 003 Gasteiz Informazioa **☎ (945) 27 54 77**
- ❖ Neska euskalduna umeak zaindu edo etxeak garbitzeko prest dago. **☎ 74 04 58**
- ❖ Emakume bat etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko prest dago. **☎ 74 36 05**
- ❖ Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. **☎ 74 04 75**
- ❖ 17 urteko neska pertsona nagusiak zainduko lituzke. Egunez edo gauzez. Etxeko lanak eta jatorduak ere egiten ditut. Esperientziarekin. **☎ 74 36 38**
- ❖ Emakume batek nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia daukat. **☎ 75 62 18**
- ❖ Klinikako laguntzaile eta Gutxitu Psikikoen Hezitzaile tituluak dauzkat eta lan egingo nuke. **☎ 74 34 68**

## Partikularrak

- ❖ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. **☎ 74 28 02**
- ❖ Ingeleseko irakasle bat behar dut goizez klaseak emateko. Oinarrizko maila. **☎ 74 21 84**
- ❖ Marrazketa industrial eta die-driko partikularrak ematen ditut. **☎ 74 43 98** Iñaki

## Etxebizitzak

- ❖ Altzolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. **☎ 74 37 41**
- ❖ Etxea salgai San Roken, Arregitorre 12. Erabili gabe. 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea. **☎ 75 51 77** Tere
- ❖ Pisua salgai Erretxindi kalean. 4 gela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta gas natural berogailua ditu. **☎ 74 44 66** Arantxa
- ❖ Pisu bat behar dut alokatzeko Elgoibarren lehenbailehen. **☎ 909 22 36 27** Leire
- ❖ Pisua salgai Bernardo Ezenarro 5ean. Berogailua, 3 logela, jangela, sukaldea, komun bat eta 2 ganbara. **☎ 74 15 90**

- ❖ Deuston pisua betetzeko neska behar da. **☎ 74 33 38** Vanesa
- ❖ KONPARTITZEKO etxe bila nabil. **☎ 74 09 44**
- ❖ Pisua SALGAI SANTA ANA kalean. 3 logela, sukaldea, jangela, 2 komun eta ganbara. **☎ 86 12 47 - 74 35 86**
- ❖ Pisu bat ALOKATU nahi dut Elgoibarren. **☎ 45 35 59**
- ❖ Etxebizitza SALTZEN DA SAN BARTOLOME kalean. Sukaldea, bi komun, bi logela eta egongela-logela ditu. Jantzita eta berritua. **☎ 74 04 99**
- ❖ Beste batzuekin bizi izateko PISU BILA nabil Mendaron edo Elgoibarren. **☎ 61 96 60** Ana
- ❖ Jantzitako pisua daukat alokatzeko P. Muguruzan. **☎ 74 04 75**

## Garajeak

- ❖ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. **☎ 74 27 73**
- ❖ Auto txiki batentzako marradun garajea alokatzen dut. Batzoki azpian. **☎ 74 01 13**
- ❖ Garaje bat saltzen dut Arregitorre Iean. **☎ 74 30 81**
- ❖ Garaje itxi bat salgai Arregitorren. **☎ 74 12 53** (Pilar)
- ❖ Garage itxi bat saltzen dut Santa Anan. **☎ 74 21 21**

## Bestelakoak

- ❖ Eskusoinuak konpontzen ditut, marka eta modelu guztiak. **☎ 47 00 01** (Setatik 7etara, oste-gunetan izanezik)
- ❖ Perikito urdin batek ihes egin zigun astelehenean. **☎ 74 02 09**
- ❖ Elgoibarko Odol Emaileen Elkartek 18 urtetik gorako guztiei dei egin nahi die odola ematera anima daitezen, bai eta bazkide izatera ere. **☎ 74 36 39 / 74 11 90**
- ❖ Haizea emakume taldeak idazteko makina eta kalefakzio bat behar ditu. **☎ 74 32 06**
- ❖ Etxebizitza jatzeko denetik behar du Caritasek. **☎ 74 10 09 / 74 12 57**

# URRIA

## Hildakoak

- ▶ Ascensión Etxaniz, 88 urte (Urriak 12)
- ▶ Roke Regil Mujika, 80 urte (Urriak 22)
- ▶ Antonio Martín Villalobos, 73 urte (Urriak 31)

## Jaiotakoak

- Erik Luengo Otero (Urriak 3)
- Aitor Asenjo Benavente (Urriak 5)
- Nora Fernández Soto (Urriak 11)
- Iñaki Gabilondo Landa (Urriak 12)
- Elena Larreategi Arriola (Urriak 17)
- Ainara Arriola Lobete (Urriak 17)
- Garazi Kalzakorta (Urriak 22)
- Aitor Diego Pérez (Urriak 29)

## Ezkondutakoak

- Ramon Mujika Arkarazo eta Lorea Sasiain Urdangarin (Irailak 14)
- Jose Ramón Burgaña Rubio eta Sonia Revert Medel (Urriak 19)
- Santiago Mantecón Gutierrez eta Francisca Lucha Linares (Urriak 19)

## Agurrak

- ❖ Zorionak Miren Ramosi hila-ren 13an 7 urte beteko dituelako. Jokinen partez musu haundi batekin.
- ❖ Zorionak Isabel Bermejori azaroaren 2an urteak egin zituelako. Bere taldearen eta lagunren partez.
- ❖ Zorionak osaba Jose Ramon hurrengo 13an zure urtebetetzea delako. Itsaso eta Iñigoren partez.
- ❖ Zorionak Ana Mari zure urtebetetzean, Itsaso eta Iñigoren partez.
- ❖ Zorionak Jon Rodriguezi hila-ren 11an 7 urte beteko dituelako, Jokinen partez.

# ASTEAN ZEHAR

## 9 LARUNBATA

16,30 ZINEA "Ace Aventura"

19,30-22,15 ZINEA "Diabólicas"

## 10 IGANDEA

18,00 FESTA DO MAGOSTO

✓ Galiza Etxean

19,30-22,15 ZINEA "Diabólicas"

## 11 ASTELEHENA

19,00 HERRIKO INSTITUTUKO GURASOEN ASANBLADA

BBB, REM eta ESOk gurasoak

✓ Bernardo Ezenarro zentroan

## 12 ASTEARTEA

10,00 - 16,00 UR KONTSORZIO-AREN ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean

19,00 HERRIKO INSTITUTUKO GURASOEN ASANBLADA

Modulu eta batxilerr berriko gurasoak

✓ Bernardo Ezenarro zentroan

## 14 OSTEGUNA

20,00 HBren BILERA

Euskal presoaren Euskalerriratzea

✓ Kimetz Elkartearen

22,15 ZINE KLUBA

"Vivir rodando"

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 15 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P. M. Urruzuno 8an

22,15 ZINE KLUBA

"Vivir rodando"

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba



## HIESAren ASTEA

Ostirala, 8

22,15 Antzerkia: "Curita Cañón". Taldea: Algara.

Herriko Antzokian

Larunbata, 9

12,30 Futbol partidua. Mintxetan

Igandea, 10

13,00 HIESaz hildakoei omenaldia

Partehartzaileak: Haritz, Bertso

Eskola, Trikitilari Eskola, Txalaparta Taldea eta Bereziki

Jarraian Giza-katea Plaza Handian

ANTOLATZAILEA: ERROTATXO

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
9, larunbata:	Bidasolo	Bidasolo
10, igandea:	Bidasolo	Bidasolo
11, astelehena:	Yudego	Yudego
12, asteartea:	Yudego	Yudego
13, asteazkena:	Yudego	Yudego
14, osteguna:	Yudego	Yudego
15, ostirala:	Ormazabal	Ormazabal

### OKINDEGIA:

10, igandea: DONA MERCEDES

## ZineA

### Diabólicas

Zuzendaria: Jeremiah Chechik

Antzeleak: Sharon Stone,

Isabelle Adjani, Chaz

Palminteri

Eskola bateko zuzendariak tratu

txarrak jasarazten dizkio

emazteari. Gainera senarrak

maitalea ere badauka. Emazteak ezezik, maitaleak ere tratu txarrak

jasaten ditu. Egoera honen aurrean emazteak eta maitaleak bat egitea

erabakitzen dute eta senarra hiltzeko plana prestatzen dute. Bainera

batean ito egiten dute baina egun batean senarra berriro agertuko da.



## ONGARRI zine kluba

### Vivir rodando

Zuzendaria: Tom Dicillo

Antzeleak: Steve Buscemi, Catherine

Keener, Dermot Mulroney.

Zinearen mundua barrutik erakusten duen

pelikula. Modu alai batean kontatua dago,

ironia eta umore handiarekin. Zine

independientea deitzen den horren barruan

eginiko filmea dela esan daiteke. Errodaia

batean gertatzen diren toma faltsuak,

errepikapenak, etab. agertzen dira,

autoparodia bat eginez.





1995 edo 96an zehar autonomo hasi bazara edo enpresa berri bat sortu baduzu, deitu orain telefono

hauetara  
**74 37 04 - 74 41 12**



**BARRE**neko gida komertzialak  
**ARRAKASTAREN ATEA ZABALDUKO DIZU!**

**JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"**  
**Edari Banatzailea**



**GUÑELES**



SANTA ANA, 41 - ☎ **74 10 41 - 74 11 32**





San Frantzisko, 29 - Tel. 74 32 06 -



N A H I

